

GENERO-IDENTITATEA EUSKAL DANTZA TRADIZIONALAREN ERAIKUNTZAN

Oier Araolaza Arrieta
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), 421 or.
Bilbo, 2020

Emakumea ez da dantzaria izan, dantzatua baizik. Egia ote? Besteak beste, galdera horri ahalik eta modu zorrotzenez erantzuteko saiakera egin du Oier Araolaza Arrietak ikerlan honetan. Lanak liburu forma badu ere, doktoretza-tesi bat gordetzen du barruan. Ikerketaren nondik norakoak lau atal nagusitan banatu ditu Araolazak, eta lanean bildutakoaren laburpenarekin amaitu du.

Liburuaren edukia

Sarrera moduan aurkeztutako lehenengo atalak gaiari hurbilketa egiteko balio du, eta bertan adierazita dago zein den zehazki aztergaia eta nola helduko zaion. Ikertzailea ez da mugatu emakumeok dantzatuak izan garen edo ez aztertzeraz; galdera horren erantzun posibleak noiztik, zer kasutan eta zergatik diren jakin nahi izan du. Geroago ikusiko dugun moduan, bilaketa horretan arreta berezia eskaini dio aurrekuaren azterketari. Horrez gain, ikertzaileak lanaren objektua zer posiziotatik aztertu duen argitu du, eta gaiari dagokion marko teorikoa azaldu du, batez ere naziotasunaren, generoaren eta euskal dantza tradizionalaren arteko gurutzaketari lotuta.



1. irudia. *Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan* argitalpenaren azala.

Bigarren atalean dantzari lotutako debekuak ditugu hizpide, batzuk «euskal dantza tradizional» deritzogunari lotuak, besteak orokorrak. XVI. mendetik XIX. mendera arteko galarazpenak eta iritziak jaso ditu Araolazak, eta horien bidez erakusten du zer-nolako bazterketa pairatu zuten garai haietako emakumeek. Aipatzekoa da debekuek ez zietela emakumeei bakarrik eragiten, gehienek helburu baitzuten emakumeek gizonekin batera dantza egitea oztopatzea. Ondorioz, beti sexu bereko kideekin dantzatzera behartzen zuten, eta, sexu desberdinetakoak elkarrekin dantzatzuz gero, kontaktu fisikorik izan gabe aritzera.

Aureskua da hirugarren atalaren protagonista. Egileak dantza horren miaketa zorrotza egin du, XIX. mendean hasi eta XX. mendeko lehen erdira arte. Denboratarte horretan emakumeen parte-hartzearen gorabeherak deskribatu ditu, eta andrazkoak dantzaren subjektu aktibo izatetik subjektu pasibo bihurtzeraino nola heldu ziren erakutsi du. Horretarako, Araolazak orduko ohituren testigantzak eta kritikak bildu ditu, eta ibilbidea letraz ez ezik, irudiz ere lagundu du. Hala, irakurleak garbi ikus dezake kontatzen denaren isla grafikoa. Garai haietako intelektualek ere badute euren tarte berezia atal honetan, Resurreccion Maria Azkuek eta Aita Donostiak, besteak beste.

Azken atalean poxpolinez eta ezpata-dantzariez dihardu, eta bertan horiek urratutako bidea zein izan den kontatu da. XIX. mendeko datuetatik abiatuta datorkigu nesken eta mutilen parte-hartzeari buruzko azalpena, beste dantza batzuei dagokienez (sagar-dantza, mutil-dantzak...). Bilakaeraren zergatian sakondu du Araolazak, eta aldaketak bultzatu zituzten arrazoiak mahaigaineratu dizkigu. Laugarren atal honi amaiera eman, eta lanean jasotakoa eta ikerketari esker ondorioztatutakoa laburbilduz biribildu digu ikerlana egileak.

Euskal kulturak kezka eragiten dion ororentzat

Tradizioen ezaugarria zaharra izatea bada ere, gaurkotasun handiko gaia da liburu honetan landutakoa. Sexu/genero sistemaren eta sortzen duen dikotomiararen zimenduak dardarka jarri ditugu (edo horretan saiatu gara) azken urteotan, ekintzaz ez bada ere, ahoz behintzat. Askok aurreratu da azkenaldian genero-estereotipo eta aurreiritzien lanketan, eta gero eta errazago konturatzen gara zenbateraino daukagun barneratuta bitasun hori. Euskal dantza tradizionalaren esparruan bereizketa hori zer neurritan, noiz eta nola jaio zen ezagutu nahi izan du Araolazak. Agerikoa da lanean zehar nola saiatu den artifizialki eraikitako rol-banaketa identifikatzen eta izendatzen, genero-ikuspuntua baliatuz.

Lana, beraz, zinez interesgarria da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko jakin-mina dutenentzat, eta baita euskal dantza tradizionala intereseko duen ororentzat ere. Esango nuke euskal kulturak, bere osotasunean hartuta, kezka eragiten dion edonori ere atsegin emateko moduko ikerlana dela. Hala ere, ohar bat egin nahi diot irakurle arruntari: ez dadila beldurtu tesiaren lehen atalari ekitean, hasierako kutsu akademikoa gutxika-gutxika indarra galduz baitoa, eta irakurketa erraztu egiten baita lanak aurrera egiten duen heinean. Gainera, lehen atal horretan egiten diren aurrerapenak eta datu-jarioa lasai digeritzeko moduan azalduta daude gainerako ataletan, hainbesteko intentsitaterik gabe.

Irakurle arrunta aipatu dut, erraztasun handiagoz edo txikiagoz edonork uler dezakeen testua baita esku artean duguna. Ez da aurretiazko jakintza espezializaturik behar ikerlanaren ildo orokorra ulertzeko. Alabaina, aitortu behar dut eskertuko nituzkeela dantzari lotutako termino edo izen batzuen azalpen labur pare bat, liburuan bertan esaten den moduan, izenak egiten baitu izana, baina leku guztietan ez dugu izen berarekin izendatzen kontzeptu bakoitza. Hizkerari lotuta, esan beharrean nago poztu egin nauela hainbat hizkuntza hain modu naturalean erabili izanak, eta bereziki jasotako testigantzen bidez euskarazko testu zaharrak irakurtzeko aukera izateak, guztiz modu erosoan.

Testigantzen hariari tiraka, bigarren atalak gogora ekarri dit Joan Mari Torrealdai zenaren *El libro negro del euskera*, baina oraingo honekin maltzurkeria apur batez disfrutatu dut ezarritako debekuen irakurketa, borroka(txo) bat irabazi duenaren plazeraz. Besteen askatasunak norbere poza zapuztuta ernegatzen dabiltzanen testigantzak ez dira gutxi liburu honetan: Axularrek dantza bekatutzat hartu zuen, Añibarrok *desonesqueriaren adigarriz*at, eta Aita Donostiak patriarkatua arriskuan ikusi zuen, autoritate zibil, politiko eta militarrek ere geraraz ezin zezaketen dantza zela eta. Egun oraindik gizonen pare dantza egin nahi eta ezinean dabiltzan emakumeei ez die grazia handiegirik egingo agian, baina testigantza horiek gogorarazten digute gauzak aldatu egin daitezkeela, ditzakegula, eta, zorionez, tradizio batzuek ez dirautela betirako.

Gainera, tesirako bildutako testigantza sorta aberatsak beste gauza bat frogatzeko ere balio du: Poulain de la Barrek esan bezala, «gizonek emakumeei buruz idatzi duten guztia susmagarria da, gizonak aldi berean epaile eta alderdi baitira». Epai horietan ez da beti emakumea mendeko subjektu bezala deskribatu, edo bigarren mailako izaki legez; bai, ordea, subjektu pasibo moduan. Emakumea dantzatua, gurtua izan dela azpimarratu dute behin eta berriz (gizonek, oro har), inork emakumeei galdetu gabe gurtuak izan nahi duten edo ez, euren erabakitzeke autonomia erabat deuseztat joz. Maiz era horretako kontakizunek errealitatea desitxuratu bazuten ere, lan honek erakusten du diskurtsoak zenbateraino itxuratu duen errealitatea, gizonen gozamererako plastilina bailitzan. Etorkizunak esango digu emakumeon ahotsa gizonena beste entzuten denean errealitateak zer forma hartuko duen.

Eta orain, zer?

«Oxala lan hau alperrik egindakoa balitz» diosku egileak berak, lan hau egitera bultzatu duen egoeraren tristetiaz jabetuta. Eta, zoritxarrez, ez da alferrikako lana. Aurrerago aipatu bezala, diskurtsoak guztiz baldintzatu du emakumearen eremu «naturala» zein den, eta hau bezalako lanak funtsezkoak dira adierazpen horiek desnaturalizatzeko. Adibidez, birpentsatu beharreko adierazpenetako bat honakoa iruditu zait, Sabino Aranek euskaldunen kezkez egina: «Ya no te preocupa la tradición política: sólo te importa que te permita el dominador danzar, cantar y hacer versos en tu lengua». Bizi garen garaiotan, esan gabe doa hizkuntza, kantugintza eta dantza tributu-sistema bezain politikoak direla, eragiten digun guztia baita politikoa. Hortaz, emakumeek dantza zehatz batzuetan parte hartzea ekintza politikoa da, dantzaren izaera performatibo hutsa gainditu eta hedatzen duena.

Horrexegatik pentsatzen dut aztergai honek ematen zuela pauso bat haratago joateko aukera, eta bazela lekua tradizioari geroaldian nola heldu proposatzeko edo behintzat planteatzeko. Izan ere, ikerketaren abiapuntu den arazoaz gain, badira etorkizun hurbilerako aurreikustekoak diren eztabaidak, sexu/genero sistemaren bitartasunetik at dauden pertsoneri lotuak, adibidez, eta lanean helmugatzat ezarri ez direnak. Horrez gain, lan hau irakurtzean neure buruari galdetu diot ea emakumeok aske izateko beharrezkoa den gizonen parera jartzea, zeren bata bestearen pare jartzeaz ari garenean, beti egiten baitiogu erreferentzia emakumea gizonaren posiziora hurbiltzeari, eta inoiz ez alderantziz. Emakumeok ere praktikak janzteak aldarrikatzeaz gain, ez al zaigu komeni gizonak gonara erakartzea? Maskulinitate inbaditzaile bezain zaurgarriari ihes egin eta gizontasun-eredu berriak ere sortu behar ditugu, eta euskal dantza tradizionala ez litzateke atzean geratu beharko bidaia horretan, ez behintzat aurretik gogoetarik egin gabe. Horra hor, liburuaren bigarren parte baterako proposamena, debalde. Egilearen ibilbidea ezagutzen duenak badaki Oier Araolaza bera dela egokiena gai horri ekiteko.

Laburtuz, euskal gizartearen diziplinarteko erradiografia da Araolazak liburuan eskaintzen duena, dantza tradizionala ardatz hartuta. Azken mendeetako gertaeren kontakizunek, garai bakoitzeko giroaren deskripzioek eta horiei buruz egindako gogoetek osatzen dute ikerlana, eta horiek erakusten digute genero-rolak eraikiak direla, baita dantzaren arloan ere. Ezer baino gehiago, deseraikitze prozesuari dei egiten dio ikertzaileak, gizarte justu eta askeago bat helburu. Zelan ez, orrialdeetan zehar etengabe egiten zaio apologia dantzari, nahi gabe bada ere. Irakurle dantzazaleari gogor gerta dakioke hain lotuak gauden garai hauetan hainbeste askatzen gaituenaz irakurtzea, baina dantzari ororentzat ere helduko dira garai hobeak, emakume dantzariarentzat etorriko diren moduan.

Miren Aizpuru Bilbao